Zalantzarik gabe, Euskadiko edozein turismo-helmuga familiarekin batera aisialdian bisitatzen duen turistak gastronomiarekin lotutako jarduerak egiten ditu batez ere, bisitaldiaren arrazoi nagusia hori izan ez arren. Gainera, familian bidaiatzen duten turisten lehentasunen artean dago kostaldeko lekuak eta herriak bisitatzea, eta jarduera hori estuki lotuta dago bisitaldiaren arrazoi nagusiarekin, kostaldeko turismoa egitearekin.

Ostatu hartu duten herriko egonaldian, herrian zehar ibiltzea, hirigune historikoak bisitatzea eta hondartzan ibili eta egotea izaten dira familian bidaiatzen duten turistek nagusiki aukeratzeko dituzten jarduerak. Hondartzako egonaldiak bereizten dituzte Euskadi bisitatzen duten gainerako aisialdiko turistengandik.

Familian bidaiatzen duten turistek, ostatu hartu duten herritik kanpora irtendakoan, kostaldeko eta barrualdeko beste herri batzuk ezagutzeko eta haietan paseatzea izaten dute helburu. Ondarearekin eta hondartzako ibilaldi eta egonaldiak lotutako jarduerak ere txangoak egiteko arrazoi garrantzitsuak dira.

Jarraian eskaintzen diren datuak egoki interpretatze aldera, argi utzi behar da zifrek **jardueren eta bisiten kopurua** adierazten dutela, eta ez horiek egiten dituzten turisten kopurua.

Familian bidaiatzen duten turistek gainerako aisialdiko turistek baino hein handiagoan egiten dituzte kostaldeko turismoarekin lotutako jarduerak, landa-herrietako bizimodu lasaiarekin zerikusia dutenak, bisitaldiak natura-parkeetara eta turismo aktiboagoa, hala nola mendi-ibiliekin, surfarekin, uretako kirolekin eta bestelako kirol-jarduerekin lotutako planak.

Turista aktiboak dira, batez beste 6 jarduera egiten baitituzte egonaldian zehar (aisialdiko turisten multzo osoaren antzera). Ostatu hartu duten herriaz gain, Euskadin gehien bisitatzeko dituzten lekuen artean daude Bilboko Zazpi Kaleak, Guggenheim museoa, Bilbo hiria eta Donostiako Alde Zaharra.

Gaua igaro duten herritik irteten direnean beste hiri batzuk bisitatzeko dituzte (Donostia, Getxo, Portugalete), eta baita Gaztelugatxe, Guggenheim museoa eta Bilboko Zazpi Kaleak ere.

2.- ACTIVIDADES PRACTICADAS Y LUGARES VISITADOS POR LAS Y LOS TURISTAS QUE VIAJAN EN FAMILIA EN EUSKADI

Las actividades que las y los turistas realizan durante su estancia en un destino turístico reflejan fielmente los motivos principales de la visita y el porqué de la elección del destino.

Indiscutiblemente, las actividades que en mayor medida realizan las y los turistas familiares que visitan cualquiera de los destinos turísticos de Euskadi por motivos de ocio son las relacionadas con la gastronomía, a pesar de no ser el motivo principal de su visita. Además de estas, visitar zonas y municipios de la costa está presente significativamente entre las y los turistas familiares, estrechamente vinculado al motivo principal de su visita que es el turismo costero.

Los lugares y recursos más visitados por las y los turistas que viajan en familia durante su estancia en el municipio donde se alojan, son principalmente paseos por las localidades donde pernoctan, visitas a sus cascos históricos y paseos y estancias en la playa. Actividad esta última que les diferencia del total de turistas de ocio que visitan Euskadi.

Cuando las y los turistas familiares hacen salidas fuera del lugar donde están alojados lo hacen mayoritariamente para conocer otras localidades de costa y de interior y pasear por ellas. Las actividades relacionadas con el patrimonio y con los paseos y estancias en las playas son también atractivos importantes a la hora de realizar sus excursiones.


Para una correcta interpretación de los datos ofrecidos a continuación, conviene señalar que las cifras presentadas en los siguientes apartados se corresponden con el **número de actividades y visitas** realizadas por las y los turistas y no con el número de turistas que las realizan.

Las y los turistas que viajan en familia disfrutan durante su estancia en Euskadi, en mayor medida que el resto de las y los turistas de ocio, de las actividades relacionadas con el turismo costero, con la vida tranquila en localidades rurales, la visita a parques naturales y el provecho de un turismo más activo relacionado con actividades como el senderismo, el surf, los deportes acuáticos y otras actividades deportivas.

Son turistas activos que realizan un promedio de 6 actividades durante su estancia (en similares términos que el conjunto de las y los turistas de ocio). Entre los lugares más visitados de Euskadi, además de la propia localidad donde se alojan están: el Casco Viejo de Bilbao, el museo Guggenheim, la ciudad de Bilbao y la Parte Vieja de Donostia / San Sebastián.


Cuando salen de la localidad donde pernoctan lo hacen para visitar preferentemente otras ciudades (Donostia / San Sebastián, Getxo, Portugalete), además de visitar San Juan de Gaztelugatxe, el museo Guggenheim y el Casco Viejo de Bilbao.

21AF. grafikoa. Familian bidaiatzen duten turistek Euskadiko egonaldian egin dituzten jarduerak, turistek orotara egin dituztenekin alderatuta, 2019. Erantzun anitzeko galdera (baiezko erantzunen ehunekoa)
 Gráfico 21AF. Actividades realizadas por las y los turistas que viajan en familia comparadas con las realizadas por la totalidad de turistas que visitan Euskadi, 2019. Respuesta múltiple (porcentaje de respuestas afirmativas)




21BF. grafikoa. Familian bidaiatzen duten turistek udalerrian egindako egonaldian bisitatu dituzten lekuak, 2019. Oinarria: bisitatutako lekuak edo bisitatuko dituztenak

Gráfico 21BF. Lugares visitados por las y los turistas que viajan en familia durante su estancia en el municipio, 2019. Base: lugares visitados o a visitar



21CF. grafikoa. Familian bidaiatzen duten turistek ostatu hartu duten herritik kanpora bisitatutako baliabide turistikoak, 2019. Oinarria: bisitatutako baliabideak edo bisitatuko dituztenak


Gráfico 21CF. Recursos turísticos visitados por las y los turistas que viajan en familia fuera del municipio donde se alojan, 2019. Base: recursos visitados o a visitar



1F mapa. *Familian bidaiatzen duten turistek ostatu hartu duten herritik kanpora egindako txangoak, 2019. Oinarria: bisitatutako udalerrriak edo bisitatuko dituztenak*

Mapa 1F. *Excursiones realizadas por las y los turistas que viajan en familia, fuera del municipio donde se alojan, 2019.*

Base: *municipios visitados o a visitar*



3.- EUSKADIRI BURUZKO BALORAZIOAREN ADIERAZLE TURISTIKOAK ETA AURREIKUSPENAK

3.1.- Nola baloratzen dute Euskadi?

Familian bidaiatzen duten turista gehienek balorazio oso positiboa egin dute Euskadiri buruz, helmuga turistiko gisa. Era berean, jasotako tratuak eta helmugaren kalitateak balorazio oso ona izan dute, ezagutzen dituzten beste leku batzuekin alderatuta. Familiarekin bidaiatzen duten turisten % 89k hiru alderdi horiei buruzko balorazio oso positiboa egin dute, eta horretan bat datoz Euskadi bisitatzen duten aisialdiko turisten multzo osoarekin.

Helmuga garestia edo oso garestia dela uste dute familian bidaiatzen duten turisten % 22k eta aisialdiko turisten multzo osoaren % 19k. Dena den, batzuen zein bestean artean, kalitate-prezio erlazioak ez du eragin kaltegarririk Euskadi gomendatzeko orduan, aurrerago ikusiko dugunez.

Familian bidaiatzen duten turistek bidaiaren inguruan dituzten aurreikuspenei dagokienez, helmugari buruzko alde aurreko ezagutzaren araberakoak izaten dira, hein handi batean. Kasu gehienetan, Euskadira egindako bisitaldiak aurreikuspenak bete ditu. Bidaia aurreikusitakoa baino hobeto baloratu dute familian bidaiatzen duten turisten % 31k (aisialdiko turisten multzo osoaren kasuan % 38k).

Aisialdiko turismo orokorrarekin bat, familian bidaiatzen dutenentzat ere honako hauek dira Euskadiko bisitaldiaren hiru alderdi erakargarrienak: ingurune naturala eta paisaia; gastronomiaren eta enologiaren kalitatea, eta euskal nortasuna eta izaera.

3.2.- Itzuliko lirateke Euskadira?

Fidelizazio- eta berritze-tasa

Fidelizazio-tasa esaten zaio Euskadi berriro bisitatzen duten turisten ehunekoari. **Berritze-tasak** lehen aldiz etortzen direnen ehunekoa adierazten du. Biak ala biak garrantzitsuak dira turisten portaeraren berri jakiteko, batez ere informazio-bilaketaren harira, erreserben harira eta abar.

Familian bidaiatzen duten turisten artean fidelizazio-tasa % 59koa da, batez beste, aisialdiko turisten multzo osoan baino portzentajezko ia 9 puntu handiagoa.

Berriro etorri diren familia-turistek 8 bisitaldi baino gehiago egin dituzte aurretik Euskadira, eta antzeko zifra azaltzen da aisialdiko turisten multzo osoaren kasuan.

3.- INDICADORES TURÍSTICOS SOBRE LA VALORACIÓN DE EUSKADI Y EXPECTATIVAS

3.1.- ¿Cómo valoran Euskadi?

La valoración de Euskadi como destino turístico es muy positiva para la gran mayoría de las y los turistas que viajan en familia. Del mismo modo, valoran muy favorablemente tanto el trato recibido como la calidad del destino comparándolo con otros lugares que conocen. El 89% de las y los turistas familiares valoran muy positivamente los tres atributos en la misma línea que el conjunto de las y los turistas de ocio que visitan Euskadi.

La percepción de que es un destino caro o muy caro está algo más arraigada entre el turismo familiar (22% frente al 19% del total de turistas de ocio), aunque en ninguno de estos casos la relación calidad/precio influye negativamente en la recomendación de Euskadi, como se podrá observar más adelante.

En cuanto a las expectativas que sobre el viaje tienen las y los turistas familiares, están en gran medida relacionadas con el conocimiento previo que tienen del destino. La experiencia de la visita a Euskadi ha cubierto, en la mayoría de los casos, sus expectativas. Las cifras de superación de esas expectativas del viaje son del 31% (por debajo del 38% que alcanza para el conjunto de turistas de ocio).

Al igual que para el turismo de ocio en general los tres aspectos más atractivos de la visita a Euskadi según las y los turistas familiares son: el entorno natural y paisajístico, la calidad gastronómica y enológica y la personalidad y el carácter vasco.

3.2.- ¿Volverían a Euskadi?

Tasa de fidelización y de renovación


Se entiende por **tasa de fidelización** el porcentaje de turistas que repite su visita a Euskadi y por **tasa de renovación** el porcentaje de quienes acuden por primera vez. Es importante tener en cuenta ambas tasas a la hora de interpretar el comportamiento de las y los turistas, sobre todo en aspectos relacionados con las búsquedas de información, reservas, expectativas etc.

Entre las y los turistas que viajan en familia, por término medio, la tasa de fidelización (59%) es superior a la del conjunto de las y los turistas de ocio en casi 9 puntos porcentuales.

El número de visitas previas a Euskadi, realizado entre las y los turistas familiares que lo han visitado anteriormente, asciende a algo más de 8. Cifra similar a la alcanzada por la totalidad del turismo de ocio en Euskadi.

35F. grafikoa. Fidelizazio-tasa, familian bidaiatzen duten turisten artean lehenago ere Euskadi bisitatu dutenen ehunekoa, 2019

Gráfico 35F. Tasa de fidelización, porcentaje de turistas que viajan en familia que repiten su visita a Euskadi, 2019



Gomendio-tasa eta Euskadira itzultzeko asmoa

Gomendio-tasaren bidez neurtzen da aisialdiko bidaiari Euskadi bisitatu duten turistak zenbateraino bihurtzeko helmugaren sustatzaile.

Familian bidaiatzen duten ia turista guztiak gomendatuko liekete hurbilekoei Euskadira bidaiatzea, eta turista horien % 84k ziurtasun osoz egingo luke gomendioa.

Atxikitze-tasak, berriz, turistek helmugarekiko epe jakin batean duten leialtasuna neurtzen du. Hau da, zenbat turistek ziurtatzen duten hurrengo 12 hilabeteetan aisialdi-arrazoiengatik Euskadira itzultzeko prest daudela.

Batez beste, familian bidaiatzen duten turisten % 22k itzultzeko asmoa dute.

Tasa de recomendación e intención de volver a Euskadi

La **tasa de recomendación** mide el grado en que las y los turistas que visitan Euskadi por motivos de ocio pueden convertirse en promotores del destino.


Prácticamente la totalidad de las y los turistas familiares recomendaría Euskadi a personas cercanas y, de ellos, el 84% lo haría con total seguridad.

La **tasa de retención** mide la fidelidad de las y los turistas con el destino en un plazo concreto. Es decir, cuántos turistas afirman con seguridad que estarían dispuestos a volver a Euskadi en los próximos 12 meses por motivos de ocio.

Por término medio, el 22% de las y los turistas que viajan en familia, tienen intención de volver.


36F. grafikoa. Gomendio-tasa, familiakoei eta lagunei Euskadira bidaiatzea ziurtasun osoz gomendatuko lieketen turisten ehunekoa, 2019

Gráfico 36F. Tasa de recomendación, porcentaje de turistas que viajan en familia que con seguridad recomendarán Euskadi a familiares y amistades, 2019



37F. grafikoa. Atxikitze-tasa, hurrengo 12 hilabeteetan aisialdian Euskadira itzultzeko asmoa dutela esaten duten familia-turisten ehunekoa, 2019

Gráfico 37F. Tasa de retención, porcentaje de turistas que viajan en familia que afirman con seguridad que tienen intención de volver a Euskadi en los próximos 12 meses en plan de ocio, 2019



3.3.- Zein helmuga dira lehiakideak?

Familian bidaiatzen duten turisten % 53k beste helmuga batzuetara jotzen dute Euskadin ez badute ostaturik aurkitzen, eta, hein berean, beste horrenbeste egiten dute aisialdiko turistek orokorrean.

Ondorengo taulan lehiakide diren helmugak azaltzen dira. Garrantzitsuenak nabarmendu dira, turistek Euskadin norekin bidaiatzen duten kontuan hartuta. Edonola ere, Kantabria da ordezeko helmuga nagusia familia-turismoarentzat (% 21entzat).

3.3.- ¿Cuáles son los destinos competencia?

Las y los turistas que viajan en familia muestran la misma tendencia a desplazarse a otros destinos en el caso de no haber encontrado plaza de alojamiento en Euskadi que la totalidad de las y los turistas de ocio (53%).

La siguiente tabla muestra los destinos competencia, resaltando los más relevantes, en función de la forma social de viajar de las y los turistas en Euskadi. En cualquier caso, Cantabria (21%) destaca también como el destino alternativo principal de esta tipología de turistas.

13F. taula. Ordezko helmuga nagusiak, 2019. Oinarria: Euskadin ostaturik aurkitu ezean beste helmuga bat aukeratuko luketen familia-turistak

Tabla 13F. Principales destinos alternativos, 2019. Base: turistas que viajan en familia que cambiarían de destino por ausencia de plazas en Euskadi

Ordezko helmugak Destinos alternativos	Guztira Total	Familia-turismoa ez dena No turismo familiar	Familia turismoa Turismo familiar
Kantabria Cantabria	17,7	17,0	21,3
Katalunia Cataluña	9,1	9,3	8,3
Asturiasko Printzerria Principado de Asturias	8,8	8,2	11,6
Frantzia Francia	8,6	8,2	10,8
Galizia Galicia	7,6	7,3	8,9
Madrilgo Erkidegoa C. Madrid	6,5	7,1	3,7
Nafarroako Foru Erkidegoa C.F. Navarra	4,5	4,1	6,6
Errioxa La Rioja	4,0	4,3	2,6
Andaluzia Andalucía	2,9	3,3	1,4
Iparralde. Kantauriko kostaldea. Euskadiko inguruak Norte. Costa cantábrica. Alrededores Euskadi	2,7	2,9	1,8
Gaztela eta Leon Castilla y León	2,3	2,0	3,8
Italia	2,2	2,5	0,3
Valentziako Erkidegoa C. Valenciana	1,9	1,8	2,6
Portugal	1,6	1,7	1,0
Aragoi Aragón	1,0	1,1	0,8

4.- EGITEN DUTEN GASTUA

4.1.- Gastua orotara eta eragin ekonomikoa

Eragin ekonomikoa, hau da, turistek beren bizilekuan eta Euskadin egiten duten bidaia-gastua orotara **196 milioi eurokoa** da familia-turismoaren kasuan.

Familian bidaiatzen duen turista bakoitzak 370 € gastatzen du batez beste bidaian. Horrenbestez, pertsona eta egun bakoitzeko gastua 109€-koa da, aisialdiko turisten multzoaren batez besteko gastua baino 56 € txikiagoa.

4.- EL GASTO QUE REALIZAN

4.1.- Gasto total e impacto económico

El impacto económico, entendiendo como tal el gasto total motivado por el viaje que realizan las y los turistas tanto en su lugar de residencia como en Euskadi, es de **196 millones de euros** para el colectivo del turismo familiar.

Cada turista que viaja en familia invierte en su viaje un gasto medio de 370€ que supone un presupuesto de 109€ por persona y jornada de estancia. 56€ menos que el promedio de gasto de las y los turistas de ocio en su conjunto.


14F. taula. Gastua orotara, pertsonako gastua eta pertsona baten eguneko gastua, 2019
 Tabla 14F. Gasto total, gasto por persona y gasto por persona y día, 2019

	Gutzizko gastua Gasto total	Gutzizko gastua pertsonako Gasto total por persona	Gutzizko gastua pertsonako/eguneko Gasto total por persona y día
	Milioi € Mill. €	Bataz besteko € € de media*	Bataz besteko € € de media*
Guztira Total	1.580	512	165
Familia-turismoa ez dena No turismo familiar	1.384	541	177
Familia turismoa Turismo familiar	196	370	109

Hiru partida nagusi hartu dira kontuan kontsumo-kontzeptuetan egindako gastuaren proportzioa zehazteko: ostatu- eta mantenu-gastua, garraio-gastua eta gainerako gastu-sailak. Familian bidaiatzen duten turistek aurrekontuaren % 88 bideratzen dute ostatu eta mantenuaren partidara (aisialdiko turisten multzo osoak, berriz, % 58).

La proporción de gasto realizado entre los diferentes conceptos de consumo se distribuye en tres grandes partidas: el gasto en alojamiento y manutención, el gasto en transporte y el resto de las partidas de gasto. En el caso de las y los turistas familiares, el 88% del presupuesto se asigna a la partida del alojamiento y la manutención (frente al 58% de inversión que supone este apartado para el conjunto de turistas de ocio).

39F. grafikoa. Pakete turistikotik kanpoko gastu-kontzeptuen banaketa, 2019
 Gráfico 39F. Distribución de los conceptos de gasto, fuera del paquete turístico, 2019



4.2.- Euskadin egindako gastua

Aurreko atalean aztertutako bidaiari-gastu osoaren barruan sartzen dira turistek askotan jatorrizko herrialdean bertan ordaintzen dituzten gastuak, garraioari, ostatuari eta jardueri dagozkienak. Beraz, litekeena da zenbateko batzuek datuen alderaketa distortsionatzea. Hala gertatzen da nazioarteko turistek kasuan, adibidez, Euskadira iristeko distantzia eta garraioan ordaindutako zenbatekoa direla eta. Azterketa errazte aldera, jarraian, **Euskadin ordaindutako** pertsonako gastuak eta pertsona eta eguneko gastuak hartuko dira kontuan.

Familian bidaiatzen duten turistek kasuan, Euskadin ordaindutako gastu-urrekontua 264 €-koa da. Dena den, egonaldiaren iraupenak eragina du pertsona bakoitzak Euskadin egindako gastu osoan, eta horrek aipatutako zifra baldintza dezake. Euskadin pertsona eta eguneko egiten den gastuaren analisia leundu egiten du gorabehera hori, eta 84 €-koa da familian bidaiatzen duten turistek kasuan (aisialdiko turistek orokorrean duten gastua baino 36 € gutxiago).


4.2.- Gasto realizado en Euskadi

El gasto total del viaje analizado en el capítulo anterior incluye en muchos casos gastos de transporte, alojamiento y actividades abonadas en el lugar de residencia de las y los turistas. Es posible, por tanto, que algunos importes puedan distorsionar la comparabilidad de los datos, como sucede en el caso de las y los turistas internacionales con la distancia recorrida hasta llegar a Euskadi y su relación con el importe abonado por el transporte. Para facilitar este análisis, a continuación, se van a considerar los gastos por persona y los gastos por persona y día, **abonados en Euskadi**.

Entre las y los turistas familiares, el presupuesto de gasto por persona abonado en Euskadi es de 264€. No obstante, estas cifras no están exentas de la distancia que puede provocar la influencia de la duración de la estancia en el gasto total por persona realizado en Euskadi. El análisis del gasto por persona y día en Euskadi atempera esta circunstancia y arroja un gasto de 84€ por persona y día para las y los turistas que viajan en familia (36€ menos que el promedio de las y los turistas de ocio en general).


40F. grafikoa. Euskadin ordaindutako pertsonako batez besteko gastua, 2019

Gráfico 40F. Gasto medio por persona abonado en Euskadi, 2019



41F. grafikoa. Euskadin ordaindutako pertsona eta eguneko batez besteko gastua, 2019

Gráfico 41F. Gasto medio por persona y día abonado en Euskadi, 2019



Zer jarduera-tipologiatan inbertitzen duten aurrekontuaren zati bat

Turistek ostatu hartzen duten helmugan egiten dituzten jarduerekin eta erosketekin lotutako gastuei erreparatuta, turismoak Euskadin dituen portaera-profil batzuk zehaztu daitezke.

Familian bidaiatzen duten turisten % 62k pakete turistikotik kanpoko jardueretan gastatzen dute, paketerik kontratatu badute. Jarduerak kontratatzen dituztenek batez beste 57 € gastatzen dituzte horretan (aisialdiko turisten multzo osoak, berriz, 92 €).

Familian bidaiatzen duten turistek jardueretan egiten dituzten gastuen kontzeptu ohikoena gastronomiarekin lotutako jarduerak eta bisita kulturalak dira.


Tipología de actividades en las que invierten parte de su presupuesto

Los patrones de gasto, en relación con las actividades y compras llevadas a cabo en el destino donde se alojan, son capaces de identificar diferentes perfiles de comportamiento del turismo en Euskadi.


El 62% de las y los turistas que viajan en familia realizan gastos en actividades fuera del paquete turístico si lo tuvieran contratado. El importe medio del gasto, entre quienes los realizan, asciende a 57€ (lejos de los 92€ declarados por las y los turistas de ocio en su conjunto).

Los conceptos de gasto más frecuentes realizados en actividades, entre las y los turistas familiares que las realizan, son: actividades gastronómicas y visitas culturales.

42F. grafikoa. Pakete turistikotik kanpoko jardueretan gastuak egiten dituzten familia-turisten ehunekoa, 2019
 Gráfico 42F. Porcentaje de turistas que viajan en familia que realizan gastos en actividades, fuera del paquete turístico, 2019



43F. grafikoa. Pakete turistikotik kanpoko jardueretan pertsonako egindako batez besteko gastua, 2019. Oinarria: Euskadiko egonaldian jarduerak egin dituzten turistak
 Gráfico 43F. Importe medio del gasto por persona en actividades, fuera del paquete turístico, 2019. Base: turistas que han realizado actividades durante su estancia en Euskadi



Erosketen aldetik, antzeko portaera dute familia-turistek eta aisialdiko turistek orokorrean. Baina aldea nabarmena da pertsonako erosketa-gastuan: familia-turista bakoitzak 31 € gastatzen ditu batez beste erosketetan, eta aisialdiko turisten multzoak, berriz, 47 €.


La penetración de las compras es muy similar entre las y los turistas familiares y la detectada entre las y los turistas de ocio en general. Sin embargo, el importe medio de gasto por persona en compras, entre quienes las realizan, es mucho menor (31€ frente a los 47€ de las y los turistas de ocio en conjunto).

Familian bidaiatzen duten turisten artean honako hauek dira erosten dituzten produktu-mota nagusiak: ehun-gaiak, oinetako eta/edo osagarriak eta oroigarriak.

Las tres principales categorías de productos que definen las compras de las y los turistas familiares son: textiles, calzados y/o complementos y souvenirs.


44F. grafikoa. Erosketetan gastuak egiten dituzten familia-turisten ehunekoa, 2019

Gráfico 44F. Porcentaje de turistas que viajan en familia que realizan gastos en compras, 2019



45F. grafikoa. Erosketetan pertsonako egindako batez besteko gastua, 2019. Oinarria: Euskadiko egonaldian erosketak egin dituzten turistak

Gráfico 45F. Importe medio del gasto por persona en compras, 2019. Base: turistas que han realizado compras durante su estancia en Euskadi



FITXA TEKNIKOA

Ikerketa proiektua osatzen duten aldi bereko hiru eragiketarako fitxa tekniko bateratua aurkeztuko dugu, eta atal bakoitzean bereizi horietako bakoitzaren ezaugarriak. Hona txosten honetako datuak eragin dituzten lanak:

- Turisten unibertsoa berriz zenbatestea (kopurua)
- Aisialdiari buruzko inkesta
- Gastuari buruzko inkesta

Unibertsoa

Turisten unibertsoa (kopurua) berriz zenbatesteko erreferentzia-esparrua hauexek osatzen dute: edozein arrazoi dela eta, Euskadiko ostatu turistiko arautuetan (hoteletan, nekazaritza-etxeetan, landetxeetan, apartamentu turistikoetan eta kanpinetan) gaua ematen duten turista guztiek, Euskadikoak izan ala ez.

Aisialdiari buruzko nahiz gastuari buruzko inkestetan, Euskadira **aisialdian etorri** eta Euskadiko turismo-ostatu arautuetan (edozein kategoriatako hoteletan, nekazaritza-etxe edo landetxeetan, apartamentu turistikoetan eta kanpinetan) gaua ematen duten turista guztiek, berdin Euskadikoak izan nahiz kanpokoak izan, osatzen dute esparru-unibertsoa.

Laginaren diseinua

Unibertsoa egituratzen duten funtsezko hiru ardatz-aldagaitan agertzen dira hiru eragiketen adierazgarritasunaren irizpideak.

Denbora-ardatza:

- Uda
- Aste Santua
- Gabonak
- Urtearen gainerako sasoiak

Helmuga-ardatza:

- Gasteiz
- Bilbo
- Donostia
- Euskadiko Kostaldea
- Arabako Errioxa
- Euskadiko Barnealdea

Establezimendu-mota:

- 3 izarreko edo gehiagoko hotelak hiriburuetan
- 2 izarreko edo gutxiagoko hotelak hiriburuetan
- Hiriburuetatik kanpoko hotelak
- Landa-ostatuak
- Apartamentu turistikoak
- Kanpinak

Hiru eragiketarako bakoitzerako lagin geruzatuak egin dira; hala, ardatz-aldagaiei lotutako geruzaketa anizkoitzak eta konplexuak definitzen ditu. Geruzatze horren salbuespen bakarra turisten unibertsoa (kopurua) berriz zenbatesteko lagin-diseinuan egin da; izan ere, ez dira kanpinak aztertu, bertan ostatu hartzen duten turisten bidaiaren arrazoi nagusia beti aisia izaten dela jota. Hiru laginak era ez-proporzionalean banatu dira, ordezkaturak egon beharreko geruza bakar bat ere ez dadin lagin nahikorik gabe gelditu.

FICHA TÉCNICA

Se presenta una ficha técnica conjunta para las tres operaciones simultáneas que constituyen el **proyecto de investigación**, diferenciando en cada apartado las características propias de cada una de ellas. Las operaciones cuyos datos se han presentado a lo largo de este informe son:

- Reestimación del universo de turistas (aforo)
- Encuesta de ocio
- Encuesta de gasto

Universo

El marco de referencia para la reestimación del universo de turistas (aforo) está constituido por el conjunto de turistas, residentes o no en Euskadi, que viajen por cualquier motivo y que pernocten en establecimientos turísticos reglados de Euskadi: hoteles, agroturismos o casas rurales, apartamentos turísticos y campings.

Tanto para la encuesta de ocio como para la de gasto, el universo marco es el conjunto de turistas residentes o no en Euskadi, **que viajen por motivos de ocio** y que pernocten en establecimientos turísticos reglados de Euskadi: hoteles, (en sus diferentes categorías), agroturismos o casas rurales, apartamentos turísticos y campings.

Diseño muestral

Los criterios de representatividad de las tres operaciones están formulados por tres variables-eje fundamentales que estructuran el universo:

Eje temporal:

- Verano
- Semana Santa
- Navidad
- Resto del año

Eje destino:

- Vitoria-Gasteiz
- Bilbao
- Donostia/San Sebastián
- Costa Vasca
- Rioja Alavesa
- Interior

Eje tipo de establecimiento:

- Hoteles de 3 o más estrellas en capitales
- Hoteles de 2 o menos estrellas en capitales
- Hoteles fuera de las capitales
- Alojamientos rurales
- Apartamentos turísticos
- Camping

El diseño muestral para cada una de las tres operaciones se ha realizado de forma estratificada definiéndose por el cruce múltiple y complejo de los distintos estratos relacionados con las variables-eje. La única excepción a esta estratificación se da en el diseño muestral para la reestimación del universo de turistas (aforo), donde no se han investigado los campings al considerar que el motivo principal del viaje de las y los turistas que se alojan en este tipo de establecimientos es el ocio. La distribución de las tres muestras se ha realizado de forma no proporcional de modo que ningún estrato que debe estar representado quede sin muestra suficiente.

- **Erreferentzia puntua:** hiru lanak aldi berean egin ziren, 2019an zehar.
- **Hautatzeko metodoa:** lagin bakoitzeko geruza bakoitzeko establezimenduak ausazko zozketa bidez hautatu dira, eta inkesta egiteko baimena eskatu. Establezimendu bakoitzean, ausaz hautatu dira galdeketa egiteko informatzaileak, bertan ostatu hartu duten turisten artean.
- **Azken lagin-hautaketa egiteko puntuak:** laginak hartzeko 180 gune ezarri ziren hiru eragiketatarako, hoteletan, landa-ostatuetan, apartamentu turistikoetan eta kanpinetan.
- **Punto de referencia:** Las tres operaciones se llevaron a cabo de manera simultánea a lo largo del año 2019.
- **Método de selección:** Sorteo aleatorio de establecimientos dentro de cada estrato de cada una de las muestras y solicitud de permisos de encuesta. Dentro del establecimiento, selección aleatoria, entre las y los turistas que se alojan, de las personas informantes de la encuesta.
- **Puntos de muestreo finales:** Se establecieron 180 puntos de muestreo diferentes para las tres operaciones entre hoteles, alojamientos rurales, apartamentos turísticos y camping.

Galde-sorta

Hiru galde-sorta bereizi erabili dira informazioa biltzeko:

Galde-sorta berezi bat erabili da **aisiako unibertsoa (kopurua)** berriz zenbateteko. Haren bidez honako informazio hau jaso nahi zen soil-soilik:

- ✓ Bidaiaren arrazoia
- ✓ Informazio soziodemografikoa

Aisialdiari buruzko berriazko **galde-sorta**, honako informazio-alor hauetan egituratua, Euskadi bisitatzen duten turistek bidaiaren fase bakoitzean duten portaera aztertzeko:

- ✓ Bidaiaren arrazoia
- ✓ Motibazioaren dimentsioaren azterketa
- ✓ Konpetentzia
- ✓ Bidaia-aurrekoa
 - Aurreko informazioa
 - Erreserbak
- ✓ Bidaia
 - Ostatu-gauak
 - Egindako jarduerak
 - Ikusitako lekuak
- ✓ Bidaiatzeko era soziala
- ✓ Jatetxeak
- ✓ Helmugan jasotako informazio turistikoa
- ✓ Balorazioak
- ✓ Garraiobideak
- ✓ Informazio soziodemografikoa

Gastuari buruzko berriazko **galde-sorta**, turistek Euskadira egindako bidaiaren egindako gastuak honako atal hauen arabera egituratzeko:

- ✓ Bidaiaren arrazoia
- ✓ Garraiobideak
- ✓ Pakete turistikoaren gastua
- ✓ Pakete turistikotik kanpoko bidaia-gastuak
- ✓ Bidaiatzeko era soziala
- ✓ Informazio soziodemografikoa

Cuestionario

La recogida de información se ha realizado a través de tres cuestionarios diferenciados:

Un **cuestionario** específico para la **reestimación del universo de ocio (aforo)** cuya función era recoger exclusivamente la siguiente información:

- ✓ Motivo del viaje
- ✓ Información sociodemográfica

Un **cuestionario** específico para la **encuesta de ocio** estructurado en las siguientes áreas de información, que analizan el comportamiento de las y los turistas que visitan Euskadi, en las diferentes fases del viaje:

- ✓ Motivo del viaje.
- ✓ Análisis de la dimensión motivacional
- ✓ Competencia
- ✓ Pre-viaje
 - Información previa
 - Reservas
- ✓ Viaje
 - Pernoctaciones
 - Actividades realizadas
 - Lugares visitados
- ✓ Forma social de viajar
- ✓ Restauración
- ✓ Información turística en destino
- ✓ Valoraciones
- ✓ Medios de Transporte.
- ✓ Información sociodemográfica.

Otro **cuestionario** específico de **gasto** que, como su propio nombre indica, cumple el objetivo de estructurar los gastos efectuados por las y los turistas en su viaje a Euskadi en función de los siguientes apartados:

- ✓ Motivo del viaje
- ✓ Medios de transporte
- ✓ Gasto por paquete turístico
- ✓ Gastos del viaje fuera del paquete turístico
- ✓ Forma social de viajar
- ✓ Información sociodemográfica.

Elkarrizketaren teknika

Hiru lanak egiteko, elkarrizketa pertsonalak egin dira tabletan laguntzarekin. Izan ere, gailuei esker, landan bildutako informazioa grabatu, linean balioztatu, erregistratu eta telematika bidez bidali ahal izan da.

Inferentzia-metodoa

- Erreferentzia-esparrua
Dokumentuaren hasierako ataletan adierazi den bezala, **aisia-turismorako erreferentzia-esparrua 3.085.463 turistatan** ezarrita geratu da. Honako hau da banaketa ostatu-motari erreparatuta:
 - ✓ **2.590.727 aisia-turistak** eman dute gaua hotel-establezimenduetan.
 - ✓ **150.142 aisia-turistak** eman dute gaua nekazaritza-etxeetan edo landetxeetan.
 - ✓ **267.617 aisia-turistak** eman dute gaua kanpinetan.
 - ✓ **76.977 aisia-turistak** eman dute gaua apartamentu turistikoetan.
- Laginaren tamaina
4.546 erantzun baliagarri lortu dira **gastuari buruzko inkestan**, eta **4.421** erantzun **aisialdiari buruzko inkestan**. Turisten unibertsoa (kopurua) berriz zenbatesteko, **9.933 inkesta egin ziren**.
- Laginaren errorea
Ondoren, laginaren errore teorikoen zenbatespena eskainiko dugu, % 95,5eko konfiantza-mailarekin (hori horrela izateko aukera) eta kasurik kontrakoena % 50era eramaten duen ezaugarri dikotomikoetarako. Dena dela, datu horien erlatibotasuna ere aintzat hartu behar da, edozein aldagaitarako baliagarriak ez direnean.

Técnica de entrevista

Para las tres operaciones se realizaron **entrevistas personales** asistidas con tabletas que permiten la grabación, validación en línea, registro y envío telemático de la información recogida en campo.

Método de inferencia

- Marco de referencia
Según se exponía en los capítulos iniciales del documento, el **marco de referencia para el turismo de ocio** queda establecido en **3.085.463 turistas**. Su distribución atendiendo al tipo de alojamiento es:
 - ✓ **2.590.727 turistas de ocio** que pernoctan en establecimientos hoteleros.
 - ✓ **150.142 turistas de ocio** que pernoctan en agroturismos o casas rurales.
 - ✓ **267.617 turistas de ocio** que pernoctan en camping.
 - ✓ **76.977 turistas de ocio** que pernoctan en apartamentos turísticos.
- Tamaño muestral
Se han conseguido **4.546** respuestas válidas en la **Encuesta de gasto** y **4.421** respuestas al cuestionario de la **Encuesta de ocio**. Para la reestimación del universo de turistas (aforo) se realizaron un total de **9.933 aforos**.
- Error muestral
Se ofrece a continuación una estimación de los errores teóricos muestrales calculados, con un nivel de confianza del 95,5% (probabilidad de que ello sea así) y para características dicotómicas que se distribuyen al caso más desfavorable del 50%. No obstante, hay que tener presente la relatividad de estos en cuanto no son válidos para cualquier variable.

		GASTUARI buruzko galde-sortan lortutako erantzunak Encuestas obtenidas en la Encuesta de GASTO	Laginaren errorea Error muestral	AISIALDIARI buruzko galde-sortan lortutako erantzunak Encuestas obtenidas en la Encuesta de OCIO	Laginaren errorea Error muestral	Turisten unibertsoa berriz zenbateteko eskuratu diren kopuruak Aforos obtenidos para la reestimación del universo de turistas	Laginaren errorea Error muestral
GUZTIRA TOTAL		4.546	±1,5%	4.421	±1,5%	9.933	±1,0%
HELMUGA TURISTIKOA DESTINO TURÍSTICO	Vitoria-Gasteiz	468	±4,6%	430	±4,8%	1.958	±2,3%
	Bilbo Bilbao	839	±3,5%	806	±3,5%	1.818	±2,3%
	Donostia San Sebastián	627	±4,0%	568	±4,2%	1.914	±2,3%
	Euskadiko Kostaldea Costa Vasca	1.286	±2,8%	1.257	±2,8%	1.610	±2,5%
	Euskadiko barnealdea Interior	782	±3,6%	842	±3,4%	1.738	±2,4%
	Arabako Errioxa Rioja Alavesa	544	±4,3%	518	±4,4%	895	±3,3%
URTEKO SASOIA TEMPORADA	Aste Santua Semana Santa	297	±5,8%	336	±5,5%	443	±4,8%
	Uda Verano	2.261	±2,1%	2.201	±2,1%	3.32	±1,7%
	Gabonak Navidad	445	±4,7%	397	±5,0%	1.467	±2,6%
	Urtearen gainerako sasoiak Resto del año	1.543	±2,5%	1.487	±2,6%	4.702	±1,5%
ESTABLE-ZIMENDU-MOTA TIPO DE ESTABLECIMIENTO	Hotelak Hoteles	3.069	±1,8%	2.931	±1,8%	9.029	±1,1%
	Landa-ostatuak Alojamientos rurales	429	±4,8%	460	±4,7%	446	±4,7%
	Kanpinak Camping	582	±4,1%	597	±4,1%		
	Apartamentu turistikoak Apartamentos turísticos	466	±4,6%	433	±4,8%	446	±4,7%

- **Haztatzailea kalkulatzea**
EUSTATen eta INEn eskura dagoen informazioa, **turisten unibertsoa (kopurua)** berriz **zenbateteko** galde-sortetatik ateratako informazioa eta laginetako informazioan eskura daudenen pareko geruzapen-aldagaiak (desagregazio-maila ezberdina erabiliz iturriaren arabera) oinarri hartuta, **kalibratze-metodoa** erabili eta koefiziente haztatzailea zehaztu da, laginetako datuak aisialdiko turisten helburuko erreferentzia-esparrura eramateko.

Ondoriozta daiteke **aisialdian etorritako 3.085.462 turistak osatzen dutela aisialdiari nahiz gastuari buruzko inkestaren datuak ondorioztatzeko erreferentzia-esparrua**⁷. Honela banatzen dira establezimendu-motaren arabera:

- ✓ **Hotel-establezimenduetan** ostatu hartzen duten pertsonak: **2.590.727 aisia-turista**.

- **Cálculo del elevador**

Con la información disponible de EUSTAT e INE, la información obtenida de los cuestionarios destinados a la **reestimación del universo de turistas (aforo)** y la utilización de variables de estratificación - a diferentes niveles de desagregación según la fuente - análogas a las disponibles en la información muestral, se ha aplicado un **método de calibración** para construir el elevador que ha permitido inferir los datos muestrales al marco referencial objetivo de las y los turistas de ocio.

Se puede concluir que el marco de referencia del proyecto de investigación al que se **elevan los datos, tanto de la encuesta de ocio como de la encuesta de gasto**, queda establecido por **3.085.462 turistas de ocio**⁸, según la siguiente distribución por tipo de establecimiento:

- ✓ Personas que pernoctan en **establecimientos hoteleros: 2.590.727 turistas de ocio**.

⁷ Aisia-turista izena erabili arren, multzo horretan sartzen dira arrazoi erlijiosoengatik, borondatezko osasun-tratamenduetara, familiakoak edo lagunak bisitatzeraz edo erosketak egitera etorritakoak ere.

⁸ Aunque se denominen turistas de ocio, se incluyen también a quienes visitan Euskadi por motivos religiosos o por tratamientos voluntarios de salud, visitas a familia o amigos y compras.

- ✓ Nekazaritza-etxeetan edo landetxeetan ostatu hartzen duten pertsonak: **150.142 aisia-turista.**
 - ✓ Kanpinetan ostatu hartzen duten pertsonak: **267.617 aisia-turista.**
 - ✓ Apartamentu turistikoetan ostatu hartzen duten pertsonak: **76.977 aisia-turista.**
- ✓ Personas que pernoctan en agroturismos o casas rurales: **150.142 turistas de ocio.**
 - ✓ Personas que pernoctan en camping: **267.617 turistas de ocio.**
 - ✓ Personas que pernoctan en apartamentos turísticos: **76.977 turistas de ocio.**

AISIA-JARDUEREN KATEGORIAK CATEGORIZACIÓN DE LAS ACTIVIDADES DE OCIO	Jarduerak Actividades
Kostaldeko turismoa Turismo costero	Kostaldeko zonaldeak eta udalerriak bisitatzea Visitar zonas y municipios de la costa
Naturan atsedena hartzeko jarduerak Actividades de descanso en la naturaleza	Bizitza lasaia landa-herrietan: ibilaldiak inguruan Vida tranquila en localidades rurales: paseos por el entorno
Turismo kulturala Turismo cultural	Museoak, erakusketak, galeriak... bisitatzea Visitar museos, exposiciones, galerías Monumentuak edo ondarea bisitatzea Visitar monumentos o patrimonio Kultura eta tradizioak ezagutzea Conocer la cultura y tradiciones Erlijio-intereseko edo erromes-helburuko lekuak Lugares de interés religioso o peregrinación
Turismo aktiboa Turismo activo	Parke naturaletarako bisita Visita a parques naturales Mendi-ibilbideak, zikloturismoa, BTT, ornitologia Senderismo, cicloturismo, BTT, ornitología Surfa Surf Beste ur-kirol batzuk: bela, urpekaritza, kanoa... Otros deportes acuáticos: vela, submarinismo, piragüismo Arriskuko kirolak: parapentea, eskalada, espeleologia Deportes de riesgo: parapente, escalada, espeleología Lehiako kirolak: krosa, maratoia, txirrindularitza, futbola Deportes de competición: Cros, maratón, ciclismo, futbol Ehiza eta arrantza Caza y pesca Golfa Golf Beste kirol-jarduera batzuk Otras actividades deportivas
Hiriko turismoa Turismo en la ciudad	Turismoa ezagutzea, kaleetan ibiltzea Conocer la ciudad, pasear por sus calles
Ibilbide turistikoak Rutas turísticas	Euskadi ezagutzea, udalerriak ikustea Conocer Euskadi, visitando varias localidades
Ikuskizunak Espectáculos	Kontzertuak, zinema-jaialdiak, jazza, kirol-ikuskizunak Conciertos, festivales de cine, jazz, espectáculos deportivos
Jaiari lotutako jarduerak Actividades lúdico festivas	Herrietako jaiak: Aste Nagusia, Donostiako Danborrada, etab. Fiestas populares: Semana Grande, Tamborrada de Donostia, etc.
Gastronomiari lotutako jarduerak Actividades relacionadas con la gastronomía	Upategietara eta sagardotegietara joatea Visita a bodegas y sidrerías Jatetxe on batean jatea Comer en un buen restaurante Pintxotan ibiltzea (eguneko oturuntzetako bat egin beharrean) Ir de pintxos (en vez de una de las comidas del día) Pintxotan ibiltzea (otorduetatik kanpo) Ir de pintxos (fuera de las comidas) Gastronomia-produktu tipikoak erostea Compra de productos gastronómicos típicos Gastronomia-lantegiak Talleres gastronómicos Museo gastronomikoetarako bisita Visita a museos gastronómicos
Beste jarduera batzuk Otras actividades	Bainu-etxeak, talasoterapia, zaintza pertsonala, erosketak eta beste arrazoi batzuk Balnearios, Talasoterapia, cuidado personal, compras y otros motivos

BASQUE TOUR

turismoaren euskal agentzia
agencia vasca de turismo